

Eliza-ohiturak Mendiben eta Kongregazioa

E.: komunioa herri untan egin duzu?

K.: Mendiben. Be Beorlei eta Mendibe beti biak elgarrekin baitzien, apez bera, ta ola, Mendiben komunioa, le vingt-cinq juillet mile-neuf-cent quarante-huit.

E.: katixima?

K.: katixima re Mendiben, osteun goizetan eta igande atsaldetan, baskal eta katiximaa joaiten igandetan, ta geo katiximatik landa, bezperak segidan.

E.: nolako orroitzapena duzu zuk zure nexkato gazte denboraz?

K.: be, huna, denak berdin ginen, ta elgarrekin untsa jostatzen ginen, gure amentsa zen elgarretaatzia, ta denak bagintien.

E.: kongregazioa ezagutu duzu?

K.: ba.

E.: esplika zazu nola.

K.: be kongregazionian izaiteko ez zen behar jantzan ai izan, eta behar zen serio segitu, kantuz ai izan, eta bagindien medalla at, amabirjinaen medalla at xingola blu batekin, ezarzen gindiena lepoan, eta joaiteko elizaat, eta ilaaiteko lehen igandetan eta bestaburutan, eta beste igandetan mantelina beltza, ta beti kantuz arzea joaiten, eta urte atez jaun ertora joana zen huretaat, baizitien prolemak errematismekin Akizeat, ta hua han zelaik, gu denak, bestak zien emen lerroan, lehenik Behorlei, geo Lekunberri, geo Mendibe, ta beti jantzan ai izan mutikoekin, eta gero joan elizaat eta medallaik gabe, bena mantelin xuriaekin, ta apezak jakin baitzien, zernai erran zaun, zernai, han atxikaazi ta, zirzilka, ta bon, ordion, in gindien elgarrekin joaain ginela kantuz artzea, bana gehio ez gindiela iiliko mantelin xuria eta medalla, ta hunartu zien, maite baitzien kantia ta zeremonia ederrak, ta baikinen nexkato andana at, ta untsa kantuz ari baikinen, bi botzetan bestaburu guziz ta adorazione ta denetan, oai litaniak iten tuu hola, bena bi botzetan iten gintien lehen adorazionian, ta hara, donc hartaik landa, segitu gira esposatu artio ale.

E.: zuk komunioa in dukezu mila beatzieun ta berroita zorzi inguru ortan, hamabi urtetan...

K.: tout à fait, uztaillain hoita bostian.

E. : kongregazioren uzte ori zoin urtetan zen ?

K. : ori ez dakit, banaki Mendiben zeñia noiz benedikatia den, ordian zen, beneikatu zelaik, ta ordian ginen joan mantelin beltzekin, ta apeza ordian zen inkietatu. Ez nakike zoin urte zen. Alta, ukan gintiin xintxila atzu re cadeau antariiek, horxe baitira bi eta clochette-a ttipi, horiek ordian ukanak gintien, kantariiek ukan gintien, zeñiain benedizioniain ohoretan.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna
Alexander Artzelus Muxika
Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy
Doktorego-tesia Gasteiz, 2021
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila
Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa
Letren Fakultatea
UPV-EHU
Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.
Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala